

I. Lore Jokoak. Hirugarren asteko galderak: Euskara/euskaldunen jazarpena

- 1.- Bizkarsoro (I) pelikulan euskaraz hitz egiteagatik ikaslea zigortzen du. Zenbat aldiz errepikatu behar izaten du arbelean euskaraz ez duela hitz egingo?
- 2.- Bizkarsoro II. Guraso batzuek, euskaldunak izan arren, beldurraren ondorioz zer hizkuntzatan hitz egiten diete seme-alabei?
- 3.- Zeinek idatzi zuen *El libro negro del euskera*?
- 4.- Azkoitiko zein txoko ezagunean idatzita dago gazteleraz pilotan jokatzeko debekua?
- 5.- Zein da Patxi Zaharra ezizenez ezagutu zen pertsonaia historikoaren izena? (40 urte luzez euskara debekatu zuen Hegoaldean)
- 6.- Zein izan zen debekatutako lehen ikastolaren andereño famatua?
- 7.- Zer izen hartu zuen 60. hamarkadan euskal kantagintza eta kultura suspertzeko mugimenduak?
- 8.- Zer esan nahi du euskaldunok askotan entzun izan dugun "*habla en cristiano*" esaerak?
- 9.- Zein da Gerra Zibilean fusilatu zuten olerkari euskaldunaren izena?
- 10.- *Escuela Nacional* delakoetan zer ipintzen zioten behatzean euskaraz hitz egiten zuenari?
- 11.- Aukeratu erantzun zuzena: Hego Euskal Herrian legez...
 - a) Euskara jakitea derrigorrezkoa da
 - b) Gaztelera jakitea derrigorrezkoa da

c) Euskara eta gaztelera jakitea derrigorrezkoa da

12.- Zergatik atxilotu zuten Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarra?

13.- Zergatik kendu zuten bere kargutik Urola Treneko zuzendaria 1938an?

14.- Zein urtetan hartu zioten kargu Aitor Montes medikuari txostenak euskaraz idazteagatik? (Kontxo, mediku ona eta euskalduna!)

15.- XVI. mendean zer egin zioten Luzaideko alkateari erregearen ordezkariari gaztelera ez erantzutegatik (Ez zekien, eta nola erantzungo zuen ba erderaz!)?